

Literatura

Espainiako Kritika Saria eta Larrearen simulakroa

Duela urtebete, Beñat Sarasolak, Ion Olanok, Aritz Galarragak eta Gorka Bereziartuak Iñaki Larrea literatur pertsonaia gorpuztu zuten komunikabideetan, aldez aurretik prestatutako ekintza baten bidez. Euskal literaturaren sistemaren bizioetako bat salatu nahi zuten: literaturak berak, batzuetan, garrantzi gutxiegi duela.

ALBERTO BARANDIARAN

JOAN DEN OTSAILEAN, Frantziako kultur giroetan ziklikoki sortu ohi den zalaparta mediatikoa piztu zen Bernard-Henri Levy kazetari eta filosofo ezagunaren hanka sartze bat zela medio. *De la guerre en philosophie* liburuan, BHL-k beste gurutzada bat abiatu zuen pentsalari ezkertiarren kontra, eta otsaileko aldizkari eta berripaper guztietako kultur orrialdeetan liburuaren promozioa zen protagonista nagusia. Editorearen iri-

tziz, “garai ilun hauetarako eskuliburua” zen lana, egile eztabaidatu eta mediatiko honen pentsamenduaren “oinarrizko erreferentzia”. Erreferentzia orotarikoa, bide batez esanda, Marx edo Hegel ez ezik, Kant filosofo handia ere egurtzen baitzuen Levyk.

Hain zuzen ere 122. orrialdean, Jean-Baptiste Botul delako filosofoaren aipu bat egiten zuen BHL-k, hark frogatu omen baitzuen, “behin betiko”, Kant “abstrakzio hutsa zela, itxurazko espiritu bat”. Botulen *La vie sexuelle d’Emmanuel Kant* izeneko liburu (Mille et une nuits, Frantzia) ere iruzkindu zuen Levyk, nahiz eta liburu hori, eta Botul bera, Frédéric Pagès *Canard Enchaîné* aldizkari satiriko ezaguneko kazetariak asmatutako fikzio literarioak diren, “abstrakzio” eta “itxurazko espirituak” beraz. Esan daiteke, beraz, Botul Frantziako filosofiaren historian sartu dela Levyri esker. BHL-k berehala onartu zuen irristada intelektuala, eta publikoki zoriondu zuen Pagès, “amarru bikaina” eraiki zuela aitortuz, baina ez zion bere teoria berriari indar nimiñoa ere kendu nahi izan: “Zorionak [Pagèsi] asmatutako Kant horregatik, nahiz eta benetakoa baino benetakoagoa izan”.

Aldeak alde, antzeko zerbait gertatu zen gurean duela urtebete. Orduan, hainbat komunikabidek argitaratu zuten Espainiako literatura kritikarien elkarteak urtero ematen duen Kritika Saria, poesia arloan, Iñaki Larrea-entzat zela, *Arratsoko meditazioak* liburuagatik,

Ondoko argazkia argitaratu zuten zenbait egunkarik iaz. Iñaki Larrea omen zen, poesia alorreko Kritika Sariaren irabazlea. Iruzurra zen dena, sarien mekanismoaren aurkako salaketa.



LITERATURA | ELKARRIZKETA

“Liburu bat osatuzat emotea zaila da; beti dago kendu edo gehitu leitekeen zoezer”

‘Arratseko meditazioak’ poema bilduma argitaratu dau Interneten Helsinkiin zuzen Ináki Larrea idazle zornotzarrak. Olerkigintza buruz egin deusku berba.

Zar poezia emotea bilatu...
Ináki Larrea (Euzko Lehen Bideak) poeta eta idazle garrantzitsua da. Bere poesia, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’ bilduma, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan.



Los críticos literarios premian a Kirmen Uribe e Iñaki Larrea

‘BILBAO-NEW YORK-BILBAO’ Y ‘ARRATSEKO MEDITAZIOAK’ TRIUNFAN EN LITERATURA VASCA

Destacan que el libro de Uribe “abre nuevos horizontes” y Larrea “la mesura y profundidad” del poemario de Larrea



Iñaki Larrea y Kirmen Uribe. Fotos: DEIA

BILBAO. El Premio de la Crítica 2009 en la modalidad de Literatura Vasca otorgado por la Asociación Española de Críticos Literarios ha elegido en la categoría de narrativa el último trabajo de Kirmen Uribe, *Bilbao-New York-Bilbao* (Elkar), y en poesía la obra de Iñaki Larrea, *Arratseko meditazioak*.

colectividad, entre el mundo moderno y otro mundo en vías de extinción. “Dicho diálogo ofrece grandes posibilidades para pensar el presente desde una perspectiva plural y global”, resalta el jurado en una nota de prensa hecha pública ayer. Asimismo, destaca “la rica y emotiva prosa de *Bilbao-New York-Bilbao*, la cual logra tocar al lector en lo más profundo de su sensibilidad”.

En el primero de los casos, el jurado ha valorado el esfuerzo del escritor de Ondarroa “por abrir nuevos horizontes en la narrativa vasca y en la narrativa en general”. El libro de Kirmen Uribe propone, en opinión de los críticos españoles, “un diálogo entre la individualidad y la

UN VIAJE, TRES GENERACIONES *Bilbao-New York-Bilbao* es un viaje de avión que comienza en Litu y finaliza en el aeropuerto JFK, al tiempo que aborda la historia de tres generaciones: la de los abuelos que vivieron la época anterior a la guerra, el franquismo de los padres y la del propio escritor, en una pequeña epopeya que comienza en el siglo

Ezkerrean *Anboto* aldizkariak ia azo otsaileen Iñaki Larreakin egin zion elkarrizketa. Eskuinean berriz, *Deia* egunkariak publikatu zuen notizia, Larrea poesia alorreko Kritika Sariaren irabazletzat jotzen zuena. Existitzen ez den idazle batek hedabideen arreta eskuratu zuen, baita saridun izatea ere. “Euskal literaturan, literaturak berak garrantzi gehiegi ez duela uste genuen; pisu gehiago zutela beste zenbait kontu periferiko, eta Larreakenarekin garbi geratu zen liburua, hainbatentzat, gutxienezkoa dela” diote iruzurra egin zutenek.

“Poesia dukatuz idazti irari, ariaren tituluzko somoraz (Finlandez) dagok”

“Zar poezia emotea bilatu... Hiru arloetan banatu da liburua, eta Ináki Larrea bilduma oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan.”

“Finlandia ezorri... berezia hartu dau niretzako arratzak”

“Arratseko meditazioak” da liburua emotea bilatu... Hiru arloetan banatu da liburua, eta Ináki Larrea bilduma oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan.”

“Euskal kulturagatik interesa sumatzen dot Finlandian”

“Gorriak pasatu ondoren bakarrik lortu duu somorik hizuntza lege normalizatza”

Hau arloetan banatu da liburua, eta Ináki Larrea bilduma oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan. Bere obra osoa, eta bereziki ‘Arratseko meditazioak’, oso garrantzitsua da Euzko literatura gertatuaren inguruan.

Nor zen Larrea? Inor ez. Nork sortu zuen? Aritz Galarragak, Beñat Sarasolak, Ion Olanok eta Gorka Bereziartuak. Zergatik eta nola eragin zuten azkenean oharkabe samarrean pasa zen nahasketa? Orain argitzea erabaki dute. “Ekintzaren atzealdean hausnarketa teoriko sakona egon zen”, diote. “Oinarrian, simulakroaren ideia euskal literaturari aplikatzeko saiakera izan zen, intuizio nahiko simple eta orokortu batetik abiatuta: iruditzen zitzaigun euskal literaturaren baitan, gizarte garaikideko beste hainbatetan bezala, errepresentazioa geroz eta indar handiagoa hartzen ari zela, eta literatur lanek bainoago, komunikabideetako elkarrizketek, sariek eta enparauek osatzen zutela benetan euskal literatura”. Alegia, euskal literatura, neurri batean, simulakro bat zela. Edo simulakroaren arabera funtzionatzen duela, batzuetan bederen. Aspaldian, antzeko zerbait salatu zuen Matias Mujikak.

Goazen hasierara, bi urte atzerago. Literatura sariaren inguruan eztabaida piztu da euskal literaturan. *Utikan* manifestua sinatu dute berrogei bat idazlek: ez dituztela Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak banatzen dituen Euskadi Sariaren oinarriak onartzen, eta ez dutela literatura sariketa horretan parte hartuko. Sarasola, Galarraga, Olano eta Bereziartua literatura kritikaren eta teoriaren inguruan ari ziren hainbat komunikabideetan, eta iritzia eman nahi zutela erabaki zuten. Ez zuten, ordea, idatzirik edo deklaraziorik egin nahi, eta pertsonaia sortu zuten, salatzeko hemengo literaturarena ez ezik beste askoren gaitza dela itxurakeria hori.

Diotenez, operatiboa ez zen oso komplikatu ia. Webgun bat ireki zuten hasieran, inakilarrea.wordpress.com, eta gero hainbat poema itzuli eta bertan eskegi zituzten. Hau, esaterako: “Zure zama gozoki nire gainean/ malda, malkar, aldapa bakoitza betez/ nire gorputzaren paisaiako/ lotura, tontor eta hegi bakoitzera egokituz/ sorbaldak beste erdiaren bila, / buruak elkarri bultzaka, / eskuak bazter leun hedatuetan gurutzatuz/ loturez osatutako irudia, / gure neurriez haratago luzaturik/ zirkulu bat osatuz:/ zein bikainki biltzen diren hurbiltasun hauek/ zein ongi eta gozoki egokitzen diren/ pisu hauek, nire gainean daradaman argitasun hau”. Argazki batzuk lortu, eta pertsonaia sortuta zegoen: Iñaki Larrea zuen grazia, zornotzarra zen jaiotzez, 1977koa, eta Helsinki (Finlandia) bizi zen aspaldian. Han argitaratu omen zuen liburua, eta sarean salgai jarri zuen gero.

Anboto agerkerian elkarrizketa egin zioten Larreaki, posta elektronikoen bidez noski, argazkia eta guzti. Ustezkoak Lizardi, Josanton Artze, Felipe Juaristi eta Pello Otxoteko aipatzen zituen, eta poesia “pentsamendu logikoaren etsaia” dela defenditzen zuen, “urrinago ailegaten laguntzen dauen pentsamendua”. Beste komunikabide batzuetan, *Berria*n esaterako, poema liburua kalean zela argitaratu zuten, labur batean.

Baina ekintza nagusia Kritika Sariaren bezperan egitekoa zuten lau kritikariek. Ohar bidez, euskarazko liburuentzako saria Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* eleberririk eta Larreaken poema liburua jaso zutela zabaldu zuten. Amua irentsi eta Euskadi Irratian eta Noticias taldeko komunikabideetan horrela argitaratu zuten berria. Bertan esaten zenez, epaimahaia Larreaken poesiaran “neurria eta

sakontasuna” lehenetsi zuen, “munduaren ezagutza poetikoa eta hausnarketa pausatutako gonbitea” omen zelako. “Idazkera zehatz eta zainduaz, liburuak, estimatzen den edozein artelanek bezala, sosegu eta isiltasun tartea zabaltzen du; gaurko gizakia bizi den zurrumbiloaren erdian, hausnarketa lasairako une bat dago tarte horretan”.

“Nobela bat idaztea izan zen” diote, orain. “Egiantzekotasunez pertsonaia osatzea zen kontua, liburuari birtualki existitzeko behar zituen elementuak emanez. Hots, abangoardien asmoetako bat gauzatzea nahi genuen: sorkuntzak errealitatean zuzenki eragitea”. Eta gogoeta eragitea. “Azken finean” diote, “ekintza ez genuen hainbeste guk gauzatu, komunikabideek, Kritika Sariak, eta oro har euskal literatur sistemak gauzatu zuen. Guk makinaria eraiki genuen eta libre utzi; hortik aurrerakoa besteen kontua izan zen”.

Ekintza, baina, erdibidean geratu zen, oharkabean pasa zelako askorentzat. Ez zuen inola ere *Utikan* manifestuaren inguruan zegoen eztabaida berpiztea lortu, ia ez zuen maila pribatuaren marra igaro. Ez zuen eraginkor gertatzeko eduki behar zuen segida, eztabaida, ondoriorik izan. Beharbada, lau laguneren artean ere iritzi ezberdinak daudelako sarien garrantziari dagokionez, eta didaktismotik ihes egin nahi izan zutelako. “Ez genuen sermoirik eman nahi, besteak beste ez dakigulako kontuak soluziorik duen. Ekintza beretik ere ez dago mezu zehatz eta programatikorik ateratzerik. Ez dugu sarien aferaren inguruan inolako soluzio miragarririk”.

Sistemari berari utzi zioten berea egiten. Sistemak erakutsi zuen, kasu batzuetan, biziatura dagoela, baina, bestetan, iragazkiak uste baino hobeak direla, hainbat komunikabidek ez zutelako oharra argitaratu. Bereziartua, Olano, Galarraga eta Sarasola sine-tsita daude sarien inguruan gogoeta egin eta

**Egileek diotenez,
komunikabideek, Kritika
Sariak eta oro har
literatur sistemak
gauzatu zuten ekintza.
Beraiek makinaria eraiki
besterik ez zuten egin**

eragin egin behar dela, sariketarik kanona osatzeko lanabes oinarrikoak direlako, eta gertatu zen guztia —komunikabideen erantzuna, sarien antolamenduari begira bizi direnen jarrera eta erreakzioa...— intuizioa berresteko baliogarria izan omen zen.

“Euskal literaturan, literaturak berak garrantzi gehiegi ez duela uste genuen; pisu gehiago zutela beste zenbait kontu periferikok, eta Larrearenarekin garbi geratu zen liburua, hainbatentzat, gutxienekoa dela. Eta hau guztia salatze moduak kontua are nabarmenago egin zuela uste dugu, guk ezer esan gabe, hau da, azalpenik eman gabe, dena agerian utzi baitzuen”.

“Hainbat erreakzio ezatsegin” jasan zituzten, baina haiek defenditzen dute ez zela jolas edo probokazio merkea izan, serioa eta denboraz planifikatutako zerbait baizik. Nazioartean hainbatek bultzatutako ikuskizunaren gizarteko lanabes boteretsuen aurkako ekintza, alegia. “Joey Skaags eta The Yes Men-en prozedurak hor daude, eta filosofia post-estruturalista ere apiatu daiteke seguruenik: Foucault, Deleuze, Derrida... Simulakro kontzeptuaren bidez boterearen zirrikituetan sartzen dira, barrutik bere kontra egiteko. Baudrillardaren aipu bat da honakoa: ‘Hiperrealitateak eta simulazioak boterearen kontra bihurtzen du hark abiltzaren luzetan erabilitako disuasioa’. Boterearen kontrako mendekua da, berak erabiltzen dituen bitartekariak erabiliz gainera; mendeku txiki bat”.

Beharbada, hemendik urte batzuetara, inork Larrea izeneko poeta zornotzarra sartuko du Bizkaiko euskal idazleen antologia batean, behin, hainbat komunikabideetan, Kritika Sariaren izeneko sari bat eman ziotela argitaratu zelako. Inork ez baitzuen gero ukatu, inork ez zuen azalpenik eman; inork ez zuen atzera egin, nahiz eta inork ez zuen liburu hura idatzi. Soilik ohar bat, promozio huts sotila, soilik hori nahikoa izan zen idazle saridun bat sortzeko. ■



Palacio de Hielo Izotz Jauregia
TXURI-URDIN
Donostia

**"Egizu zerbait
ezberdina,
ZATOZ TXURIRA!!!"**



Anoeta pasealekua, 24 • Donostia
Tel.: 943 464 404 • www.eltxuri.com

